

...eta
Kitto!

2016-XII-23

997 zkia.



Senegal zati bat gurekin

*Zorionak eta
urte berri on!!*



EUKI
asesoría - aholkularitza

Enpresa eta norbanakoentzako aholkularitza

www.euki.com

Tel. 943 20 42 91

- Sozietateen osaketa
- Negozio-plana
- Subentzioetarako aholkularitza eta tramitazioa

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ c.s.

Instalakuntzak eta konponketak
antenas - telebista

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

943 530 356
688 674 242
669 934 964

electricidad
iparelek s.l.

INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA

iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com



TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

610 532 922

ARKITEKTOAK

olatz etxeberrila martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberrila

arkitektura, hirigintza eta peritazioak
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12

www.arquitectura-ei.com



ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS



ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 50
AJT Zihurtasuna s.l.p.
Barrena, 6 - behea ezk.

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen lagutzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108

www.irazabal.net

KRISTALAK



TAILERRA: ERREKATXU, 3^{an}

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@crystaleriaacha.com

ERAKUSKETA

eta faxa: 943 203 903

Arikitzaneko Zubian

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

ESTUDIOS
ARRILLAGA

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-

605 713 168

943 744 019

GARBIKETAK

Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082

Mobila 688 609 171

www.multiservicioeibar.com Barrena, 21-1.F



ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97



TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutzatila - Sorluze

Garbiketa eta
mantenimendua

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21

Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900

Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA
OROKORREAN

BARNE eta KANPOKO
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zerbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luze hori gairatzen duten testuak mozteko esku-bidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

DATORREN ASTEKO ALEA
EGUN BAT AUERRERATUKO DUGU
ETA 29AN, EGUENEAN, KALERATUKO.
HORI DELA-ETA, INFORMAZIOA ETA
ZORION-AGURRAK JASOTZEKO AZKEN
EGUNA MARTITZENA IZANGO DA.

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LEHENGUSU-TXIKIXA.- Bi lehengusuren seme-alabak euren artean lehengusu txikiak dira. *"Izta lehengusuak eta lehengusu txikixak dittugu herri hartan".*

LEIXO.- Baserri, korta eta dorretxeen leiho txikia eta estua adierazteko. Gaztelarazko *'saetera'*. Bestelako leihoa bentana esaten da. *"Txaboletan bizi ziranen leixua, eta katedraletako bentanadi ikusgarrixak, espiritu baten obria"*.

astean esanak

"Euskaltasunaren ikur bihurtu izana karga da trikitiarentzat. Horren bilakaera, gainera, gainbehera etorri da, beharbada gure egoeraren ispilu. Gu beste estatu batzuen barruan bizi gara eta askotan zaila izaten da gure identitatea azaleratzea. Horregatik, gero eta gehiago, estereotipoak sortzen ditugu: baserritarrez jantzen gara -nahiz eta baserritarrak ez horrela jantzi- eta trikitixarekin joaten gara diferentzia markatzeko. Etnografia gezurti horrek mina ematen dit"

(JOSEBA TAPIA, MUSIKARIA)

"Peru Apreta, mistikoa" nire liburu berrian badago 'Peru Abarkatik' zeozer. Mogelen liburu hura izan zen bizkaiera literarioaren eredu finkatu zuena eta nirean badaude keinuak Eibarko euskarari, baina testua batuan dago. Eibarko hizkeraren oihartzun asko daudela? Nire eibartasunaren halako aldarrikapen txiki bat egin nahi nuelako. Ni eibartar frustratu bat naiz. Liburuan, adibidez, Eibarko gauza hau txertatu dut: gustokoa dudana erakuslea aurretik eta atzetik erabiltzearena. 'Hori elefanteori' eta halakoak sartzen ditut. Beste arlo batzuetan Eibarkoek esango dute liburuko gauza batzuk ez direla oso Eibarko, baina tira"

(JOXEAN SAGASTIZABAL, IDAZLEA)

"Nondik dator kontraesan bitxi hori? Alde batetik, hezkuntza mailako eliteen kontra gaude eta, bestetik, gure handinahi abarkadunak PISA txostenean emaitza onenak izatera bultzatzen gaitu. Bestalde, zein hizkuntzatan egin dira probok? Egia da, aurrekoetan moduan, euskal ikasleek %90ek gaztelaraz egin dutela euskeraz eskolarizatuta egon arren? Egia da euskeraz egiteko ikaslearen lau aitiba-amamek euskaldunaharrak izan behar direla? Eta hori horrela egiten dela uste delako gaztelaraz bakarrik direla gai ikasleek galderak ulertu eta erantzuteko eta, horrela, euren ahalmen onenak erakusteko?"

(JOSE M^a RUIZ SOROA, ABOKATUA)



EKHI BELAR

Askaria ala merienda

Katilu baten aurrean sortutako gogoetak: Askaria ala merienda? Hamarretakoa ala hamaiketakoa? Gosaria ala armosua? Neskuik ala Cola Cao? Kaos Etiliko ala Negu Gorriak? Negua ala uda? Mendia ala itsasoa? Sardina ala antxoa? Pantxoa ala Peio? Rolling Stones ala Beatles? Yoko Ono ala Courtney Love? Marihuana ala heroina? Iribarrea ala malkoa? Tortila kipularekin ala kipula gabe? Arraultza ala oiloa? Arrano beltza ala San Juango arranoa? PP ala PSOE? EAJ ala Bildu? Tom ala Jerry? Faemino ala Cansado? Ortega ala Gasset? Cassette ala CD? UPyD ala Ciudadanos? Toni Cantó ala Felisuco? Trump ala Putin? Hillary ala Bill? Aznar ala Botella? Vodka ala ginebra? Kardamomoa ala pepinoa? Rocco Siffredi ala Nacho Vidal? Maria Teresa ala Ana Rosa? Gonbitoa ala beherakoa? Ibufrofeno ala paracetamol? Legalizazioa bai ala ez? Demokrazia ala diktadura? Bibotea ala bizarra? Hipster ala metrosexual? Emakumea, gizona ala alderantziz? Badoo ala Tinder? Selfie edo fotomatoia? Canon ala Nikon? Nikkei ala Ibxex? Amancio Ortega ala Florentino Perez? Bahamas ala Panama? Ama ala aita? Santua ala deabrua? Juan Pablo ala Benedikto? Cristiano ala Messi? Jesus ala Alá? Alaves ala Osasuna? Batasuna ala askatasuna? Independentzia ez ala bai? Hala ba, Gabon zorionsuak izan.

Erabillittako jostailuen salmenta izango da egunero

AFESD Diagnostiko bariko gaixotasunen bat daken umien alkartiak dendia ipiñi dau Amañan, Lau Bide tabernaren aldamenian, erabillittako jostailuak saltzeko. Urtarrillaren 5era arte egunero zabalduko dabe, astegunetan 09:30etatik 13:00era eta 17:00etatik 20:00etara, zapatuetan 11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 21:30etara eta domeketan, barriz, 11:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Eibarrren ez eze, Ermuko merkatu plazan be postua eukiko dabe zabalik, urtarrillaren 5era arte (astegunetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta zapatu goizetan 11:00etatik 14:00etara). Horrekin batera, aurreko astian Untzagan be egon ziran jostailuak saltzen. Lortzen daben diru guztia umiendako tratamenduetan gastatzeko izango da.



asteko
2.511
 datua

euro batu zittuen Coloniales Anselmo Gonzalez-ek Sibari Ardauen XV. Erakustaldixan antolatu eban degustaziñuan. Erdixa, 1.255 euro, San Andres fundaziñuari emongo detse eta beste erdixa Adela alkartiarri. Parte-hartzaillien artian 30 ardauestutxe zozketatu zittuen.

Kolorez betetako jardunaldixa izan zan Txontan

La Plazoleta auzokuen alkartiak, DSS2016 egitasmuarekin bat eginda, kulturari eskindutako jardunaldixa egin zeben aurreko zapatuan. "Energia Olatuak" proiektuaren harira antolatutako ekitaldixan auzuan hiru mural margotu zittuen parte hartzera animau ziran boluntarixuak, ArteFactory enpresakuak lagundu eta gidatuta. Auzokuak esandakuaren arabera, "udaleko talde politiko guztietako ordezkariak eta M^a Jose Telleria Diputaziñoeko Kultura zuzendarixa auzora etorri ziran, proiektua bertatik bertara ezagutzeko asmuarekin, eta danak zoriondu ginttuen". Programia biribiltzeko, Itzamna poesia taillarreko



Begoña Sanchez, Elisa Lopez eta Maite Lorezok hainbat olerki errezitatu zittuen. Muralak Industrias Rocandio eta Solac lantegixak hartu zittuen eraikiñetako hormetan margotu dittue.

Eguaztenetako azokak tokiz aldatu dittue

Gabonetarako ekarri dittuen barrakak dirala eta, astero eguaztenetan egitten diran azoka bixak tokiz aldatu bihar izan dittue aste honetan eta hurrenguan be holan egingo dabe: normalian Txaltxa Zelaixan egoten diran saltzailliak Toribio Etxebarria kalian ipiñiko dittue postuak eta Urkizukuak, barriz, goiko parkian (ziburu-zaurak daguzen aldian).



Aste biko aldaketia izango da eguaztenetako azokian. Artisauen Gabonetakua, bestalde, urtarrilaren 5era arte egongo da zabalik Zuloagatarren kalian.

Artisauen Gabonetako azokia Topalekuan

Eguaztenian inauguratu eben urtarrilaren 5era arte Topalekuak hartuko daben "Made in Eibar" Gabonetako artisau azokia Eibart alkartekuak. Goizetik zein arratsaldetik zabalduko dabe, 11:00etatik 14:00xetara eta 17:00etatik 20:30xetara. Aurtengo azokia 7 postuk osatzen dabe, danak Eibarko artisauak egindako lanekin.

autuan

"Enplegurako bidea"

Armerixa Eskolako Ikasle Ohien Elkarateak, Eibarren enplegurako aukerak bultzatzeko asmuarekin, "Enplegurako bidea" izeneko formakuntzarako ekimena jarriko dau martxan, Eibarko Udalak eta Lanbidek finantziauta. Kualifikaziño bajua daken Eibarko langabetuendako pentsautako proiektua da, hainbat fase eukiko dittue eta parte-hartzaillien premiñetara egokituko da. Urtebeteko iraupena izango dau eta izen-emotia Pegoran egin leike, urtarrilaren 20ra arte.


Gabonak Amañan

Amesti, Azkena, Gau-Txori, Jantaedan, Lau Bide eta Or-Ondo tabernak, Udalaren laguntzarekin, hainbat ekitaldi antolatu dittue Amañan gabon jaixetarako. Gaur txupinazua eta gabon kantak izango dira, eta bixar eguerdixan cava eta kiskillak eta arratsaldian triki-poteua. Eta hillaren 26tik aurrera beste hainbat ekitaldi prestau dittue (24. orrialdeko agendan ikusgai).

Ondo begiratu duzu? 6.314 zenbakia baduzu, zatoz Gabonetako oterra jasotzera!

**Hori bai,
abenduaren
29rako!!!**

Bestela, hilaren
30etik aurrera
**2. zenbakiak
(7.943)** izango du
eskubide hori



**EZ GALDU
eskura duzun
AUKERA!**


2.000 euroko
balioa duen oterra
saridunaren zain!
Urtea merezi duzun
moduan amaitzeko!!

kale izena pertsonaiaren izana



egilea:
**FERNANDO
ESNAOLA**

Dibujo Eskolarekin elkarlanean



TIBURZIO ANITUA Eibarren jaio zen 1848an eta 1938an hil zen. Eibarko udalak, Tiburzio Anituari Amaña auzoko kale baten izena eskaini zion Ospitalea eraikitzeko emandako laguntzagatik. Eibarren grabadore ofizioa ikasi eta behar horretan jardun zuen Ameriketara joan aurretik. Kolonbian, Barranquilla herrian, arma-denda handi baten kargu hartu zuen eta beste eibartar bat kontratatu zuen, Juan Sarasua, laguntzaile bezala. Gero berari saldu zion denda. Tiburzio Anituak ondo ezagutzen zuen Eibarko Ospitalaren historia: 1563. urtearen inguruan jaso zen. 1794. urtean frantsesek Eibar erre zutenean, ospitala ere kiskalita geratu zenez, Frantzisko Aretak, Argentinako La Plata herrian zegoen abade eibartar batek, 4.000 erreald bidali zituen ospitala berriz jasotzeko. Tiburzio Anituak, bere testamentuan, ondasun guztiak bere jaioterriko ospitalari laga zizkion. Orduko ospitalaren administratzailea Timoteo Zubiare zen (Eibarko alkate izan zena), eta Anituaren diru-laguntza oso ondo etorri zitzaion ospitala aurrera ateratzeko.



Gabonetako eskaparate irabazliak

Dendarien Elkarteak Gabonetarako antolatutako eskaparate lehiaketako irabazliak aukeratu ditue. Epaimahaixaren erabagixaren arabera, eskaparatistak apaindutakuen artian lehen sarixa Guby mutillak dendakuak eskuratu dabe eta bigarrena Twins dendiak irabazi dau; eta dendarixak apaindutakuen artian, lehen sarixa Goiko-Luz dendiari emon detse eta bigarrena Valenciagari. Horrez gain, jendiak Facebook bittartez emondako botue-ri begira, Ikusimakusik irabazi dau. Eta botua emon eben guztien artian egindako zozketan, irabazliak Beñat MIn, Ylenia Aranzabal eta Aitziber Sorazu izan dira.

Dendarixen zozketako irabazliak

Eibarko Dendarien Elkarteak, Gabonetako kanpaiñaren harira, bezeruen artian banatzeko 100 euroko 20 erosketa-txartel zozketatu zittuan eta sari-dunak aurreko astian jaso eben sarixa, alkartiaren buleguan. Erretratuan ikusten ditzuzuen Oscar Sanchez, Eli Tudanca, Aniceta Silebo, Dori Ferrero, Carmen Zubia, Laura Lopez de Eguitar, Sonsoles Hernandez, Alicia Manier, Idoia Amorrosta, Vanessa Lopez, Katty Pineda, Esther Fernandez, Yolanda Albi-su, Txomin Lasuen, Begoña Blos, Idoia Perez, Andrea Gomez, Tomas Rojo, Itziar Lopez eta Chelo Vila izan dira irabazliak, zorionak!



Santo Tomas eguna ospatu zuten San Andres egoitzan

Bazkari berezixa egin zeben, urtero moduan, San Andres egoitzako bihargiñak eta bertan bizi diranak. Lagun eta jai giruan pasatako jardunaldixan, Javier Osa administradoriak urtiak egitten zittuala be ospatu eben.



Astelena Gabonetako parkia zabalik

Aurreko zapatuaz geroztik martxa betian dago Astelena Gabonetako haur-parkia eta datozen egunetan be zabalduko dabe, ikasliak oporrak dittuela aprobetxauta. Asteburu honetan itxitta egongo da, baiña astelehen, martitzen, eguen eta barixakuan nahi dabenak juateko aukeria izango dau, goizezko 11:00etatik 14:00xetara eta arratsaldeko 16:30xetatik 20:30xetara. Abenduaren 31n, barriz, bakarrik goizetik zabalduko dabe. Eta urtarrillaren 2, 3 eta 4an be ohiko ordutegixan zabalduko dituu atiak. Sarreriak 3 euro balixo dau (duan, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bonuarekin).



Tandanacui Gurutze Gorrixarekin bat

La Salle Azittaingo Tandanacui taldekuak, urtero bezala, Eibar-Ermuko Gurutze Gorrixarekin batera, Gabonetako "Sus derechos en juego" izeneko kanpaina bideratu dau, haur guztiak jostailuren bat izan deixen asmuarekin. Horretarako, abenduan "alkartasun sandwichak" saltzen jardun dabe barixakuetako jolasorduan eta, horrerri esker, kanpainaarako 500 euro batzia lortu dabe. Bide batez, kolaborau daben ikastetxeko guztieri eskerrak emon nahi detsez, emondako laguntasunagaittik.

Sahararen aldeko liburuak

Eibar-Sahara alkartekuak, urteroko martxan, urtia amaittu baiño lehen bigarren eskuko liburuak saltzeko azokia egin dabe aurten be. Aurreko asteburuan Untzagan egon ziran eta, betiko lez, azokiak liburuak merke erosteko eskintzen daben aukeria aprobetxau eben askok.



Hitzaldi interesgarria Guraso eskolakuekin

La Salle Isasi eta Azittaingo Guraso Eskolako taldiak alkartuta, kiropraktikan aditua dan Simon Marmier medikuaren hitzaldixa euki eben oin dala egun batzuk. Isasiko aretuak hartu eban ekitaldixan 40 bat lagun alkartu ziran, atal teorikua eta praktikua izan zittuan saiuan. Sendagilliak bizkarrezurra zaintziaren garrantzixaz berba egin eban eta, bestiak beste, "hortzak egunero garbitzen dittugun moduan, bizkarrezur gimnasia be egin biharko genduala" azaldu zetsen. Ondoren, atal praktikuan, edozeiñek egitteko moduko



ariketak zelan egin azaldu zetsen. Hitzaldira juandakuak eskerrik beruena azaldu nahi detse Marmier doktoeari, "guretako ezezaguna dan gaixa horren modu ulergarrixan azaltziagaittik".



Senegal eta Eibar batzeko jai arrakastatsua

Domekan Etorkinen Nazioarteko Eguna izan zela eta, *Diapo Lete Senegaldarrak Eibarren Kultur Elkarteak* jaialdia antolatu zuen. Europako errefuxiatuen egoera salatzeaz gain, Eibar eta inguruan bizi diren senegaldarrek aurten sortu duten kultur elkartearen ezagutzera emateko bidea zabaltzeko ekitaldiak eta Mballo Ndiaye elkarte horretako buruak dioenez, *"dena oso ondo joan zen. Hasierako urduritasuna albo batera lagata, primeran pasatu genuen jaiak eta azkenean jende as-*

kok hartu zuen parte. Horregatik oso pozik gaude, hurrengo ekitaldi bat antolatzen hasteko irrikitan".

Elkartea sortzeko betebeharreko baldintzak betetzeko eta helburuak kideen artean adosteko luzaroan jardun dute beharrezko berak eta Rokhaya Diaw elkartearen idazkariak. Orain arte 50 bazkide baino gehiago egin dituzte eta beste asko bazkide-txartela eskuratzeko bidean dira.

Elkartzearen edo batzearen ideari erreferentzia egiten dio Diapo Lete izenak eta, Ndiyaek

azaldu digunez, asmo nagusiak bi dira: *"Batetik Senegalgo kultura ezagutzera ematea nahi dugu, baina horrekin batera bizikidetzak hobetzea ere bai. Azken batean, gure helburua kultura bien arteko harreman positiboak sortzea da".* Eta hori lortzeko norantza biko integrazioa bultzatzen ahalegintzen diela dio: *"Senegaldik datozenei harrera informala egiten diegu, hau da, nora etorri diren azaldu eta euren buruak kokatzen laguntzeko ahalegina egiten dugu. Kontuan izan behar dugu honaino ailegatu aurretik eure-*

tako askok bidean asko galdu dutela, kasu askotan ia bizitza ere". Baiña euren ohiturei eusten ahalegintzen badira ere, euskal kulturara ohitzeko ahaleginak ere egiten dituzte. Horren adibidez hartu daiteke eurretako batzuk Ongietorri Berbetan-era egitasmoan sorreratik parte hartzen dihardutela, besteak beste euskerara gerturatzeko lehen pausoak emateko asmoz.

Herrialde bietako musikak, janariak eta pertsonak, denak bat egiteko aukera bikaina eman zuen domekakoak. Dia-



Patxi Luz Rodriguez

(AINHOA GURE LANKIDEAREN AITA)

Abenduaren 12an hil zen, 67 urterekin

Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi diegu haren senide eta lagunei.

...eta kitto! Euskara Elkarteak

po Letek antolatutako jaiak goizean goizetik jarduera ezberdinekin Untzaga betetzea lortu zuen. Nahi izan zuten guztiek Senegalgo pintxo tipikoak, kafea eta tea probatzeko aukera izan zuten. Horrekin batera musika eta dantza izan ziren protagonista: txalapartariak, Senegalgo dantzak eta musika, jolasak...



Senegalgo musika eta dantzak bertatik bertara gozatzeko aukera egon zen domekako jaian. **Leire**

Sei-zazpi urte gurekin

Senegalgo jai tipikoekin egindako herri bazkariak pentsatzen zutena baino jende gehiago erakarri zuela esan digu: "Esango nuke bazkarirako 200 lagun baino gehiago batu ginela, denetarikoak: eibartarrak, senegaldarrak, brasildarrak, marokiarrak... Giro ederra izan genuen eta jende guz-

tiak oso ondo pasatu zuen. Prestatu genuen arrozak ere arrakasta handia izan zuen". Bazkarian, besteak beste, Eibarko marokiarrak sortutako Alkarama elkarte kultureko kide batzuk egon ziren eta,

jaiari esker sortu zen giro paregabearekin pozik, senegaldarrak zoriondu nahi dituzte, "gauzak horren ondo antolatzegatik". Horrekin batera, herrian bizi diren marokiarrak antzerako ekitaldiren bat antolatzera animatu nahi dituzte.

Ez dira urte asko igaro lehen senegaldarrak Eibarrera ailegatu zirela. Ndiyaek esandakoaren arabera, "lehenetarikoak edo lehenak gu izan ginen, orain dela 6 edo 7 urte. Eibarren baino lehen Bilbon egon ginen, baina beharra hemen aurkitu genuenez, Eibarrera etorri ginen lanera eta bizitzera". Elkartean dauden beste senegaldarrak hemen, etxetik milaka kilometrotara ezagutu di-

tuzte, bakoitzak jatorri ezberdina duela eta, aurretik ez zuten elkar ezagutzen. Hori bai, hemen bat egin dutenean "izugarritzko poza" sentitu dutela dio.

Elkarteko kideek "senegaldarrak jende alai eta ona" direla erakutsi nahi diote jendeari eta, horregatik, domekako jaiak izan zuten harrera onarekin animatuta, antzezlan edo kontzerturen bat emateko asmoari buruan bueltak ematen hasita daudela aurreratu digu: "Gure artean badago horrelakoak egiteko prest dagoen jendea eta asko gustatuko litzaiguke zerbait antolatzeko aukera izatea. Horrekin batera, herrian egiten diren jardueretan eta, ahal dugun guztian laguntzeko prest gaude".



Diapo Lete elkartekoek 200 lagunentzat arroza prestatu zuten. **Leire**



**GABON
HAUETAN**

**ingeleza
oparitu
INFORMATU**

943203197

ABBIE WHITE
english school



Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
 ☎ 943 12 02 00 ☎ FAX: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirugia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatalogia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8) Pediatria	18) Foto-depilazio
9) Psikiatria	Unitatea
10) Neurologia	

Antonio Jimenez gazte etorri zen Andaluziatik, 19 urterekin, eta 84 egingo ditu hemendik gutxira. Bizitasun handiko gizona da eta, Correosen jubilatu eta gero, Roberto Etxabururekin sortu zuen Nagusilan gure herrian. Bera dugu gaur egun Eibarko taldearen arduradun nagusia eta ez dago egunik kale egingo dionik bera hainbeste betetzen duen egitekoari. Emazteak ere bizio bera du eta arratsaldero joaten da egoitzara, bertakoekin kartetan egitera. Jubilatzea ez da bere hiztegian sartzen. Bejondeiola!



- Hilaren 2an Eibarko Nagusilane 20 urtetan egindako lanaren errekonozimendua jaso zenuten. Jendeak badaki gizarteari zelako ekarpena egiten diozuen?

Badaki hemen gaudela eta existitzen garela, baina gutxi ematen du hurrengo urratsa, hau da, gizartean gure beharra duten horiekin astero ordu gutxi batzuk partekatu. Atzo, kasualitatez, emakume gazte batek interesa erakutsi zuen eta ea animatzen den. Bestalde, erakundeek-eta badute egiten dugunaren berri, eman ziguten plakak ondo erakusten duen moduan. Eta adin nagusikoen familiek ere asko eskertzen ditute egiten dugun ahalegina.

- Zenbat lagun zaudete orain taldean? Bolondres lana ez dago modan, ezta?

Hamasei gara, hasierako urteetan 26ra ere iritsi ginenean. Eta, horrelako arloetako gehienetan gertatzen den moduan, emakumeak dira nagusi. Batz besteko adina 70 urtetik gorakoa da. Egia da boluntariotzak ez duela sasoi onenak bizi: Gurutze Gorria, Caritas... erakunde asko dago jende faltan.

- Baina hona datorrenak gero gustora jarraitzen du. Beraz,

Antonio Jimenez (NAGUSILAN):

“Ez dago aktiboki zahartzen joatea bezalakorik”

abantailak zentzu bietan partekatzen dira.

Jakina, zuk ematen duzu, baina baita jaso ere. Ni egunero nator goizetan hona eta ezin zoriontsuago nabil. Hemen ikusten ditudan irribarreek guztiz betetzen naute. Gainera, zer eskatzen da ba? Bi ordu astero. Zer da hori? Badago jarrera bat ulertzen zaila dena: bat jubilatu eta `nik nahiko lan egin dut dagoeneko` esan eta, hala, bizitza zure aurretik zelan pasatzen den ikusten geratzea. Horrekin konformatzea ez dator bat ni naizen moduarekin.

- Zein eremutan egiten duzue lan batez ere?

Egogain gerontologia zentro honetan, San Andres egoitzan eta Garagunen. Eta gure zeregin bertakoei konpainia edota laguntza eskaintzea besterik ez da. Bizipenak elkarri kontatu, prentsako albisteak irakurri eta komentatu edo, beste barik, konpainia egitea da eskaintzen

duguna. Jakina, tokatzen denean baita entzun ere, edota berriketa eta denborapasak egitera animatu. Ahal badugu erosteketa, enkargu edota gestioak egiten ere laguntzen diegu.

- Ez zarete horretara bakarrik mugatzen. Eguraldi onarekin txangoak ere prestatzen dituzue, ezta?

Uda aldean Debara, Zumaia eta Loiolara joaten gara, bai; baina guk ez dugu ezer antolatzen, guk kolaboratu egiten dugu. Zentroetako langile teknikariek gomendatzen digutenari jarraitzen diogu beti. Horregatik, edozein animatzen dela ere gurekin jardutera, jakin behar du langile teknikari horiek direla pertsona egokienekin harremanetan jarriko diotenak. Eta, garrantzitsua dena, norbanakoei erabakitzen dute zenbat denbora duten elkarlanerako, astero bi ordu eskaintzetik hasita. Ez da nekerik hor!

- Zentroetan ere aktibitate ugari partekatzen dituzue...

Gaur, Santo Tomas eguna izanda, txistorra ez da faltako. Urtarrilaren 6a urteko egun politenetakoa izaten da: Errege Magoz mozorrotu eta solairuz-solairu ibiltzen gara, opariak banatu eta Gabon kantak abesten. Eguenetan, bestalde, San Andres egoitzan izaten naiz bingo kantatzen. Ez dut asperzeko astirik izaten eta euren kabuz ezin dutenei pasiatzera ateratzea modukorik ez dago. Nire urterik onenak lan honetan eman ditut eta hemendik atera ditut nire lagunak onenak ere.

- Zure moduan gozatzeko aukera eskaini beharko diezu besteei ere. Zer egin behar dute interesatuek?

943-820087 telefono zenbakira deitu, 11:00etatik 13:00etara, eta probatu. Oso gutxi eskatuko zaio eta asko jaso ahal izango du. Aktiboki zahartzea bizitzeko modurik onena da.

Aspaldiko irudi baten atzean ezkutatutakoa



Hori da orain dela ia bost urte Jose Valderrey eibarrak eta Soraia Molina bere emazteak Donostiako enkante denda batean berreskuratu zutena. Kazetariak dira biak eta urte askotan argazkilaritza munduan lan egiten dihardutenak. Valderrey Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoa da, orain bertan argazki batzuk ditu ikusgai Portalean duten talde erakusketan eta urtero zaletu berriei zuzendutako ikastaroa ematen du. Harrituta ere badaude eurek erositako dagerrotipoak izandako oihartzuna dela-eta. Aurkikuntzarengatik pozik badaude ere, "Eibarkoa edo Arratekoa izan balitz, gustorago hartuko nuke", dio eibarrak.

Espaniako argazki zaharrenetakoa ei da Soraia Molina eta Jose Valderreyren bildumakoa. 1845. urtearen inguruan ateratakoa izan daiteke Toledoren irudia erakusten duen dagerrotipoa, Luis Daguerrek teknika hori asmatu eta handik sei urtera. "2012ko urtarrilaren 27an erosi genuen enkante denda batean. Kajoi batean zegoen eta saltzaileak ez zekien bestelako daturik irudiaren inguruan", esaten digute. Zilarreztutako kobrezko plakak bat da, kuartila baten tamainakoa eta, zaindu barik badago ere, argi ikus daiteke Toledo dagoela bertan: "Alcazar-a nagusitzen da etxeen gainetik, hainbat eliza ikus daitezke eta baita eguzkira zabalduetako erropa ere".

Markoa zabalik zuela diote aurkitzaileek eta plakak urratzeak, atzamarkadak eta hatz-markak zituela. Eta aldamenetan irudia zirriborrotsuagoa ere bada. Muestra guztiz zabalik zegoen ikusi zutenean eta metalezko edo paperezko zuriune-barra falta zitzaion, haren marka aurkitu bazuten ere. Irudia sortu zeneko markoa eta beira galdu ditu eta uste dute dituenak XX. mendean sortutakoak direla: "Egurrezko markoa du eta ez du inolako zigilurik. Dagerrotipoa kartoizko euskarri bati erantsita dago eta bertan daude eskuz egindako inskripzioak".

Bikoteak ez daki oraindik zeinek egin zuen dagerrotipoa, baina egilea hil zela 70 urtetik gora izango dela bai. "Irudia edonork erabiltzeko moduan zabaldu ba-

dugu ere, ez dugu inolako asmorik merkatal erabilerarik emateko. Jendearen esku egotearekin pozik gaude." Bilbon bizi diren kazetariak badituzte interes handiko beste irudi batzuk ere, baina kasu honek ikerkuntzarako tartea ere eskaini die, "bere inguruan ezagutzen ez ditugun gauza asko biltzen direlako". Iaz Santanderren egin zen argazkilaritza topaketa batean Maria de los Santos Garcia Felguera adituarekin egin zuten topo eta azken honek ikertzen jarraitzeko hainbat bide zabaldu ditu.

Aurreko asteko eguenean egin zuten irudiaren aurkezpen publikoa Gaztela-Mantxako Unibertsitateak antolatutako Ciudad Realgo Argazkilaritza Historikoaren IV. Topaketetan. Han Esther Almarcha Gaztela-Mantxako Ikerketen Zentroko zuzendariak esan zuenez, "Toledoko irudi zaharrena izateaz gain, Espainia guztian hirien panoramikak erakusten dituzten bakanetakoa izango da, lau-bost besterik ez daudelako guztira". Kataluniatik etorritako argazkilaria frantses batek lortutako irudia izan daitekeela ere badio Valderreyk.



Ezker aldean bi marka ditu irudiak: zilargilearena goian eta zilar-kantitatearena behean.

Ainhoa Arroitauregi (modelo):**“Esperientzia berria eta polita izan da, betidanik gustatu zait moda eta modelajea”**

Ainhoa Arroitauregi, 17 urteko eibartar gaztea, ez da geldirik egoten dakien horietakoa. Bere pasio handiena musika zela pentsatzen genuenean, bat-batean, modelo lanak ere ederto egiten dituela erakutsi du. www.arizonavintage.com atarian vintage eta amerikar estiloko sudaderekin posatu du, eta oso pozik dago izandako esperientziarekin. Batxillergoko 2. maila ikasten dihardu Ignacio Zuloaga institutuan. Oraindik ez dauka oso argi Batxillergoa amaitu ondoren zer ikasiko duen, baina ikasketekin aurrera egiten duen bitartean, moda eta musikarekin ahalegintzen jarriatzeko asmoa daukala azaldu digu.



- Interneten zure argazkiak ikus daitezke. Nolakoa izan da esperientzia?

Azken urteetan nahiko ezaguna egin den denda da *Arizona Vintage*. Bilbon dago eta *Instagram* bitartez jarraitzen dut. Sare sozial horretan jendea animatzen dute eurendako modelo lanak egiteko. Niri erropa eta modelaje mundua gustatzen zaidanez, mezu bat bidaltzea pentsatu nuen. *Instagram*en ditudan argazkiak ikusi zituzten eta nirekin harremanetan jarri ziren. Hau gehienbat *casting* antzeko bat izan da. Bilbora joan nintzen, argazkiak atera zizkidaten eta euren webgunean jarri dituzte, beste neska batzuen argazkiekin batera. Oraindik ez didate esan eurekin lanean jarraituko dudana ala ez, baina oraingoz esperientzia polita izan da. Ez da gauza serioa izan, baina zeozterekin hasteko ondo dago.

- Nolako erropak erakusten dituzu argazkietan?

Argazkietan sudadera desberdinekin agertzen naiz eta benetan politikak dira. Niri asko gustatzen zaidan estiloa da. Bigarren eskuko erropak dira, beraz errepikaezinak. Vintage eta amerikar estilokoak dira.

- Gustatuko litzaizuke mundu honetan jarraitzea?

Oraindik ez daukat oso argi batxillergoa amaitzerakoan zer ikasiko dudana, baina karreratik aparte, moda edo moda diseinuari buruzko zerbait egin nahi dut. Moda, erropa eta modelaje mundua betidanik gustatu zaidan gauza da, eta egunen batean mundu horretan jardutea gustatuko litzaidake. Oso zaila da, zerbait berezia ikusi behar dizute. Hau lehenengo pausua izan da eta ikusiko dugu aurrerantzean zer gertatzen den. Ni aukera guztiak probatzeko prest nago. Madrilen ikasi nahi dut, asko gustatzen zait eta oso lagun onak ditut han.

- Modaz gain, musika da zure zale-tasunik handiena.

Bai, txiki-txikitatik abesten dut eta orain dela gutxira arte Eibarko Koru Gaztean egon naiz. Pena handia eman dit lagatzeak, urte asko eman ditut hor eta lagun asko egin ditut, baina orain ikasketetarako denbora gehiago behar dut. Jarraituko dut abesten nire kabuz, eta hor ere zerbait suertatzen bada ez dut ezetz esango. Musika mundua moda baino zailagoa da, baina talde edo garitoren batean jarduteko aukera sortzen bazait bertan egongo naiz.

**PEDRO Mª GARMA QUINTANA**

(2016-XII-13)

Zure hutsunea nabaritzen dugu eta ziur gaude, zauden tokian zaudela, han ere zure presentziaz ondo gozatuko dutela. Betirako izango zara gure oroimenean.

URKI-UBITXAKO ZURE KUADRILA



Mikel Rodriguez Alberdi saritu du publikoak

Aurreko barixakuan banatu zituzten Gaztezulo Bideo Lehiaketako zazpigarren edizioako sariak Donostiako Tabakaleran, Kutxa Kultur aretoan. Saridunen artean Mikel Rodriguez Alberdi eibartarra egon zen: lehiaketara aurkeztu zuen "Maitasunaren indarra" bideo-

ak Publikoaren Saria eraman zuen, 291 boto jaso eta gero. Saritutako bideoa zuri beltzean grabatu dute eta mutua da. Kontatzen duen istorioa, berriz, pobrezia-aren ingurukoa da. Lehiaketako lehen saria, bestalde, "Arrainopola" (Gaizka Azkarate eta Ekaitz Uzin) lanak ja-

Gaztezulo Bideo Lehiaketan

so du eta bigarrena "Gordin" izenburukoak (Jon Corres, Julen Aldama, Uxue Gutierrez, Eneko Ajangiz eta Amaia Urbieta).

Gaztezulok antolatutako lehiaketan saria irabazi duen 24 urteko eibartarrak orain dela gutxi ekin dio ikus-entzunezkoak egiteari, baina orain arte izandako emaitzak begiratu gero argi dago zinemagintzan ezin hobeto hasi dela: "Fase REM", Maria de Jesus bere bikotekide azpeitiarrarekin batera grabatutako 5 minutu inguruko lana, grabatu duten lehen, Asier Errasti Eibarko Film Laburren jaialdiaren azken edizioan, lehiaketara aurkeztutako

Mikel Rodriguez eta Maria de Jesus.



111 lanen artean Coliseoan emateko aukeratu zituzten 40 bideoetako bat izan zen. Eta Gaztezuloko bideo lehiaketan saritutako bideoa, berriz, ilobekin batera grabatu zuten. Berak azaldutakoari jarraituta, "Mutua da, zuribeltzekoa eta pobrezia-ri buruzkoa. Gai hau umeekin landu nahi izan dugu. Honetan ere Mariak pianoa jotzen du".



The Vartools zuzenean Espaloia inauguratzeko jaian

Hilabeteetan itxita egon den Elgetako 13 Spaloia kafe antzokia (lehengo Espaloia kafe antzokia) atzera ere zabalduko dute eta, hori dela eta, inaugurazio jaia antolatu dute gaurko: egitaraua arratsaldeko 19:30ean hasiko da, Sustrai Colina eta Amets Arzallus bertsolariek egingo duten saioarekin. Ondoren, 20:15ean Jon Gurrutxagak bakarkako akustikoa eskainiko du. Hori amaitu ondoren, joandako guztientzat pintxoak emango dituzte, doan. Eta jaia agurtzeko, 22:30etik aurrera The Vartools talde eibartarrak kontzertua emango du. Sarrera doan izango da.



IRIKIERA JAIA
ABENDUAK 23, OSTIRALA

19:30 BERTSO SAIOA
 Sustrai Colina
 Amets Arzallus

20:15 JON GURRUTXAGA
 Bakarkako akustikoa

Ondoren PINTXOAK DOAN!

22:30 THE VARTOOLS
 SARRERA DOAN!

13 SPALOIA
 Elgetako Kafe Antzokia

Pedro M^a Garma Quintana (2016/XII/13)



GURE ONDOTIK ALDENDUTA ERE BETI IZANGO ZAITUGU GOGOAN, zurekin bizi izandako oroitzapen on guztiak bizirik gordetzen ditugulako.

ZURE ANAI-ARREBA ETA ILOBAK



Debarrenian be ekin jako erabagitzeko eskubidiaren aldeko prozesuari Gure Esku Dago herri-ekimenaren eskutik. Asmu 2017ko maiatzaren 7xan Eibarren ez eze, Elgoibar, Soraluze, Deba, Mutriku eta Mendaron galdeketia egittekot moduan egotia da. Gure eskualdian 16 urtetik gorako 55.000 bat lagunek eukiko dabe etorkizunian Euskadirako nahixago daben estatus politikuaren inguruan euren eritzixia emoteko eskubidia. Eta horretarako lehen pausuak emoten hasi dira: lehenik eta behin, galdeketiari legitimidadia eta babesa emoteko bihar diran siñadurak batu biharko dittue herri guztietan eta horretan hasitta dagoz.



Erabagitzeko eskubidiaren aldeko 1.500 siñadura billa

Eibarren zapatuan hasi ziran siñadurak batzen, Erabaki Biot ekimena aurkezteko Untzagan egin zan ekitaldixan. Talde argazkirako batu ziranetako askok egunian bertan siñatu eben, baiña bestela be galdeketiaren aldeko siñadura emoteko aukeria badago: martitzenetan, 19:00etan, Arrate Kultur Elkartean egongo dira Eibarko Gure Esku Dago-ko ordezkariak eta eguen eta barixakuetan, barriz, 19:30xetatik 20:30xetara Deporren be siñadurak batzen jardungo dabe. Eta jaixak pasau eta gero, kalera urtengo dirala au-

rreratu dabe, "herriko auzo eta kalietan jendiak siñatzeko aukeria izan deixan". Diñuen moduan, aurretik daken erronka ez da makala gero: Eibarren populaziño osuaren %5ak, 1.500 lagunek siñatzia bihar dabe eta, hori lortzeko, gehixen jota bi hilleko epia dake eta epe hori aurreko zapatuan zabaldu zan gurian.

Asteburuan hasi zan Erabaki Biot kanpainaekin, galdeketia egittekot siñadurak batziaz haratago, herritarren artian autu honen gaiñeko informaziñua zabaldu eta debatia eragin nahi dabe. Ekimenaren pre-

sentaziñuan esandakuaren arabera, "Eibarko herritarrak gure etorkizuna demokratikoki erabagitzeko asmuarekin, pausuak emoten hasitta gaoz eta, galdeketiari bidia emon ahal izateko, premiñazkuak diran hainbat zeregin dagoeneko bete dittugu. Bestiak beste, alkartiaren estatutuak erregistratu dittugu eta Batzorde Sustatzaillia be eratu dogu. Eta, jakiña, herri-galdeketiak zilletasuna izateko eibartarron atxikimenduak jasotzeko biharrian hasitta gaoz". Beste ezer baiño lehen, izenpetu eta herri-galdeketiari babesa emon ahal izateko, ezinbesteko bi baldintza aintzat hartuko dirala argi laga nahi dabe: "Batetik, galdeketa egunian 16 urte beteta izatia eta, bestetik, Eibarren erroldatuta egotia". Jendiari argi laga nahi detse baldintza bi horrek betetzia derigorrezkoa dala, "bestela siñadurak ez dabelako ezertarako balixorik eukiko".

Galdeketia egin ahal izateko eskatzen dan siñadura kopurua batzia lortu eta gero, orduan zihetzuko da bozketa eguneko galderia. Edozelan be, "eztabaidarako jarrera irekixarekin eta aniztasuna kontuan izanda, ahalik eta adostasun zabalena lortzen ahaleginduko gara. Horretarako, adosguena deritzon lan-taldea abian jarriko dogu eta batzorde horren osaketia adiñez, generoz, pentsamoldez, jatorriz... diferentia diranen artekoa izango da".

Aurreratutakuaren arabera, "galderia adostu eta ondorengo pausua, herri-gal-



Aurreko asteburuan aurkeztu eben Iruñean datozen lau urtiotarako ibilbide-orrixa izango dana.



Zapatuan Untzagan egindako agerraldixarekin batera ekin jakon Erabaki Biot kanpaiñari. Leire

deketia egitteko eguna ondo antolatzea izango da. Horretarako, herrixan jai girua ezarri, ordutegixa eta galdeketa-lekuak finkatu, mahaixak eratu, programa informatikua preparau eta beste hainbat egingo dittugu".

Zalantza eta beldurak uxatzeko, argi laga nahi dabe datu personalen babesa momentuoro bermatuko dala: "Datuen babeserako legia modu zorrotzian beteko da eta, itaunketia egin eta bi hillebetera, datu guztiak suntsitu egingo dira, baimendutako enpresa baten eskutik. Bestalde, kontsultak hainbat printzipio beteko ditu: gardentasuna, publizidadia, argittasuna, informaziñua eskuratzeko aukeria, batzorde sustatzaillien neutraltasuna, emaitzaren zilletasuna, aniztasuna, berdintasuna eta diskriminaziñorik eza, inklusiñua, eraginkortasuna eta kontuak emotia, bestiak beste. Gardentasuna ziurtatzeko, prozesuaren amaieran izapide guztien inguruko informaziñua, baita ekonomikua be, herritarren esku ipiñiko dabe".

Datozen lau urtiotarako Prest

Zapatuan bertan Prest izenburuko plana, 2019ra arteko bide orrixa aurkeztu eban Gure Esku Dago-k Iruñean, Baluarte jauregixan, 200 bat lagunen aurrian. Presentaziñuan datozen lau urtiotako bidia lau ardatzen inguruan osatu nahi dabela emon eben aditzera: galdeketa, erabagitzeko eskubidiaren aldeko itunian, herri mobilizaziñuan eta alkarlanian. Esandakuari jarraituta, "euskal herritarrak etorkizun politikua erabagitzia eta horretarako bihar dan eztabaida publikua zabaltzia" nahi dabe eta, horretarako, "ahalik eta azkarren euskal erabagi eremua finkatu" bihar dala aurreratu eben. Eta horretan guztian, ezinbesteko baldintza modura ikusten dabe herritarrak ahalduntzia.

EIBARREN NUN SIÑATU LEIKE?

**Martitzenetan,
19:00etan, Arrate Kultur Elkartean.
Eguen eta barixakuetan,
19:30xetatik 20:30xetara, Deporren.**

**Gabonak pasauta
kalera, herriko auzo eta kalietara
urtengo dira jendiak siñatzeko
aukeria izan deixin.**

GALDEKETAK

Galdeketen arluan, zihertzuen datorren urtia dago. Hiru sorta nagusi izango dira: martxuaren 19xan izango da aurrenekua, maiatzaren 7xan bigarrena eta ekaiñaren 18xan hirugarrena. Busturialdian (Bizkaia),



barriz, apirillaren 2xan egittia aurreikusten dabe. Udazkenian be izango da ariketarik; oingoz, Otxandiokua (Bizkaia) baieztatuta dago. Oin arte 38 herri-galdeketa egin dira. Gure Esku Dago-k esandakuaren arabera, bide orrixa amaittu baiño lehen hiriburuetan be galdeketa antolatzea nahiko leukie. Azpimarratu eben moduan, tokixan tokiko herritarrak sustatuta egitten dira kontsultak. "Herri galdeketeekin hasi gara erabagixa gauzatzen eta modua erakusten", esan eban Angel Oiarbidek ekitaldixan, dinamikaren izenian.

ITUN HERRITARRA

Erabagitzeko eskubidiaren aldeko ituna egittia bide orrixa jasotzen daben beste ildo bat da. Lehen zeregiña, Itun Herritarraren egittia izango da. Bilbon aurkeztuko dabe, datorren urteko ekaiñian: "Gure Esku Dago-ren filosofixa jasoko dau, baita erabagixaren inguruko edukixa eta nolakotasuna be". Ondoren, Itun Herritarraren oiñari modura hartuta, biharri ekingo detse euskal eragillien ituna erdietsi eta, holan, "Euskal Herri maillako ituna osatzeko".

MOBILIZAZIÑUAK

2017ko mobilizaziño nagusixa Itun Herritarraren aurkezpena izango da. Bilbon egingo da, 2017ko ekaiñaren 10ian. Edozelan be, bide orrixa amaittu artian beste mobilizaziño haundi batzuk egittia be aurreikusten dabe.

ALKARLANA

Alkarlana da eta izango da beste ardatz bat. "Euskal Herriko alderdi, sindikatu, erakunde, fundaziño, enpresa, kooperatiba, unibersidade eta eragillien artian sasoi bari baten oiñarrixak eraikitzeke proiektu ezberdiñetan alkarlanian jardungo dogu". Diasporarekin be aritu nahi dabe.



Errege Etxia eta Isasiko jauregixa

Behin aro modernuan sartuta inguruko sozialismuaren sehaska bihurtu aurretik, gure herrixan Espaiñako Errege Etxiarekin lotutako hainbat ospakizun egin ziran, askotan etxe horretakuen presentziarekin. 1605ian Printzea jaio zala ospatu zan, orduko maiatzaren 22xan komentuan egindako mezarekin eta kanpuan izan ziran dantzekin. Bezpera zapatua izan zan eta, herrixa apaintziarekin batera, argixak piztu ziran. Asmua izan zeben zezen batekin be karre- rak egitteko, baiña plazan elizako materixal- ak eguazen eta bertan behera laga zeben.

1746xan, Fernando VI.a proklamatu zebela- eta, Sanjuanetan egitten zan zezen-korrída an- tzerakua egin zeben, kanpai-hotsak herrixa har- tu zeben, hainbat dantza egin ziran kalia- n, txapliguak be izan zeben euren tartia eta arda- u bannatu zan herritarren artian.

1828ko ekaiñaren 14an erregiak Eibartik pa- satu ziran Diputaziñotik Madrillera bidian eta ei- bartarrak aukera hori aprobetxatu zeben herri- xan zein maitatuak ziran erakusteko. 1865ian Isabel II.a erregiña Alfonso eta Isabel seme-ala- bekin izan zan eta Isasiko luxuzko jauregixan hartu zeben ostatu. Bisita horrekin lotuta hain- bat ospakizun antolatu ziran, tartian Plaza Barri- xan kokatu zan herriko industrien erakusketia.

1879xan be izan zan festejatzeko asmua M^a Pilar infantia Eskoriatzako bañuetatik gurera etortzeko asmua zekala jakittian. Baiña infanta hil egin zan egun batzuk lehenago. 1887ko udan Maria Cristina erregiña izan zan Eibarren eta, ho- ri aprobetxautu, kalia- k dotoretu ziran eta baita bi arko jaso be, bat Bidebarrieta amaizten zan puntuan eta bestia Isasin. Orduan be herriko in- dustriaren produktua erakutsi ziran, kasu ho- rretan Bidebarrietako eskolan. M^a Cristinak, ja- kiña, Isasiko jauregixan egin zeben lo.

Behin XX. mendian sartuta, 1905eko uztailla- ren 10ian Alfonso XIII.a Isasiko jauregira etorri zan Donostitik automobillian, Aibarreko kondea lagun zebela. Eta Eibarrek jai hartu zeben han- dik hiru urtera, 1908ko iraillaren 11n, errege be- ra emaziarekin etorri zanian Fiestas Euskaras- en barruan prestatutako Arte eta Industrien Era- kusketia bisitatuz. Orduan be hainbat arku ja- so ziran eta etxietako balkoiak eta taillerretako lei- huak ondo dotoretu zeben, txapliguak handik eta hamendik inguratuta. Arratsaldeko bostetan heldu ziran errege-erregiñak auruan. Urkusuko zubittik pasatzerakuan han eguazen bihargin as- koren txaluak jaso zittuen, Grabadores kalia- n gobernadore zibillaren agurra jaso zeben eta, Es- taziñora ailegatuz, autotik jaitsi eta euren zain eguazen autoridadiekin egin zeben bat, tartian Isasiko markesia, Union eta Realeko kondeak, Santa Kurutz markesa, etb. Dantzari-txikixen

konparsari eta musikueri jarraituta, Erakusketia zeguan tokira heldu ziran eta han hartu zittuen Toribio Zulaika batzorde antolatzaillien buruak eta bere delegaziñuak. Lokalian sartzerakuan, seikote batek errege-martxa jo zeban eta lorak eskindu jakozen erregiñari. Eibarko bihargiñen lana goraiatu zeben errege-erregiñak eta han- dik udaletxera jaso ziran, euren prestatuta- ko lunch-arekin jarraitzeko. Handik erregiña Is- asiko jauregira jaso zan markesarekin, eta gerua- go juango zan hara errege be. Parrokixara egin- dako bisitarekin amaittu zan egun horretakua eta arratsaldeko sei t'erdixetan abiatu ziran Do- nostiaruntz.



Markeskua jauregixa

Isasitarren jauregixa aro modernuan eraikitta- kua da eta Ermurantz zoian Erret Bidiaren on- duan egin zeben. Antxiñako dorretxe eta jaun- txuen etxien eredu dogu Isasitarren armarrixa daroian eraikiña. Lehelengo bizilagunak Martin Lopez de Isasi eta Domenja Orbea izan ziran 1593. urte inguruan. Eurak izan zeben monja kontzepzionisten konbentua sortzeko asmua euren semiak burutu zeben. Martin XVI. men- deko merkatarí garrantzitsua izan zan, Felipe II.aren kortian egondakua eta negoziuak Sevilla aldera eruan zittuana. Famelixakuak gorteko postu esanguratsuetan izan ziran urtietan eta, 1931n Errepublikia aldarrikatu arte, Espaiñako errege-erregiñak Markeskuara askotan etorri zi- ran. Isabel II.a, Maria Cristina erregiña, Alfonso XIII.a eta Victoria Eugenia... asko izan ziran ber- tan. Felipe IV.ak be Francisco Fernando infantea bere semiaren edukaziñua Juan Isasi Idiakezen esku laga zeben. Azken hau Santiagoko zaldu- na eta Gaztelako hainbat etxegunietako jaun- txua zan, Isasiko torrietakua izatiaz gain. Infantia gazte hil zan, Markeskuan bertan, 1634ko mar- txuaren 11n, eraikin horretan denboratxua egin eta gero.



JESUS GUTIERREZ

Altxor txikiak

Eibartar guztiok egiten dugu, egunegun, herriaren historia; gure aitzindariak guri laga ziguten eta guk ondorengoei lagako diegun ondare gisa. Egune- roko eraikuntza horrek hain- bat agerpen izaten ditu -egunkarietan, argazkietan, bideoetan etabarretan jaso- ak- eta horiek izango dira, etorkizunean ere, XXI. men- dearen hasieran Eibarko gi- zartea zelakoa zen ikertzeko balio izango dutenak.

Alabaina, bereziki nabarmen- du nahiko nuke norbanako eta familia askoren ahalegin bere- zia euren etxeetan benetako altxorrak gordetzeko. Argazki eta idazki horiek dira, euren arbasoen objektuekin batera, denborarekin benetako balio aipagarria mereziko dutenak. Pertsona horiek erabaki ezin egokiagoa hartzen dute asko- tan Eibarko historiaren zati bat artxibategi publikoen esku la- gatzen dutenean, batez ere Ego Ibarraren esku, modu ho- rretan Eibarko mikrohistoria- ren atal hori hiritar guztien es- ku ere geratzen delako. Herriaren historia ikertzera dedi- katzen garenok ikaragarri es- kertzen ditugu halakoak, ho- rrela azaleratzen delako Eibar- ko historia, batez ere hirita- rren ahotik sortutakoa. Ez ba- karrik historia "ofiziala" edo komunikabideetan argia ikus- ten duena, baizik eta euskarri horien bitartez jende apalak kontatutakoa, herriaren bizi- tzeri paraleloki lotua. Balio handiko altxor horietakoren arteko dugu Crispulo Bolun- bururen familiartekoek intere- satu guztien eskura laga digu- tena; azken adibideetako ho- rrekin heldu zaizkigun 120 ar- gazkiek, euren sorburua orain dela 100 urte dutenek, atle- tismoaren hastapenetara era- maten gaituzte eta baita hain- bat hamarkadatan Eibarko bi- zitza soziala izan zenera ere.



Kike Garciak bi gol sartu zituen.

Eibar FT-k aurrera egin du Kopa Torneoan

Herenegun Xixongo Sporting-i 3-1 irabazita Mendilibarren mutilek Kopako final-zortzi-renetarako txartela eskuratu zuten, eta gaur eguerdian Espainiako Futbol Federazioan egin beharreko zozketaren zain geratu dira. Xixonen 1-2 irabazi eta gero, eibartarrek azkar bideratu zuten kanporaketa Ipuruan lehen minutuan gola sartuta. Kike Garciak beste gol bat sartuko zuen eta hirugarrena Adrianek lortu zuen. Ligari dagokionez, bestalde, Leganesen bana berdindu ondoren, Gabonetako oporrak pasatuta hiru partidu geratzen zaizkio taldeari

LaLiga Santander-eko lehen itzulia amaitzeko: Atletico de Madrid hartuko du Ipuruan urtarrilaren 7an, zapatuan, 16:15ean; El Molinon-en jokatu du hilaren 16an, astelehenean, 20:45ean; eta, amaitzeko, Bartzelona hartuko du 22an, domekan, orduan ere 20:45ean.

860 abonatu gehiago

Klubak gaur egun 5.515 abonatu ditu, denboraldi hasieran baino 860 gehiago. Ikusten da "SD Eibar" birusa hedatzen diharduela eta orain 300 jarleku daude libre Ipuruan.

Urruzmendik lidergoa berreskuratu du pistako Bio Racer Sarian

Aurreko zapatuan Anoetako belodromoan jokaturako Sari horretako laugarren jardunaldiaren ondoren, Eibar Energia Hiria - Debabarreneko txirrindularia Open mailako sailkapen orokorreko gorenera bueltatu da, Igor Arrutirekin duen lehiari eutsiz. Orain Onditz Urruzmendi igeldotarra doa aurretik, hiru puntura du Donosti Gaineko Arruti eta 17ra Oier Iburguren.

Bestalde, domekan Oñatin jokaturako ziklo-kros proban Eibar Energia Hiriko hiru ordezkari hartu zuten parte. Aitor Hernandez ermuarrak irabazitako proban Mikel Mujika izan zen Eibarko Klub Deportiboko taldearen ordezkari onena, 17. postuan, Iñigo Etxarri eta Ekaitz Txintxurretaren aurretik.

Erregional Gorengo Eibar Urkok abiadura bizia hartu du azken jardunaldietan

Azken denboraldiko Urko 4 Alkidebaren lekukoa hartu duen Eibar FT-ko talde berria neurria hartzen ari zaio lehiaketari eta azken jardunaldietan goruntza egin du nabarmen. Ander Trebiñok zuzentzen duen taldeak azken lau partiduak irabazi ditu eta, hamabi puntuak bereganatzeaz aparte, hamahiru gol sartu ditu eta bakararra jaso. Orain indartsu dagoela, gorago egin ahal izango duen ikusi behar, hurrengo lau jardunaldietan goian dauden taldeak izango dituelako aurkari: Urolaren kontra jokatu du Argixaon, Zumaiaiko hartuko du Unben, berriro etxean Soraluze izango du bisitari, eta hurrengoan Bergarara joango da, Agorrosin partidua jokatzen. Gaur egun eibartarrek Soraluzeokoekin daude berdinduta hirugarren postuan.



gixiaon, Zumaiaiko hartuko du Unben, berriro etxean Soraluze izango du bisitari, eta hurrengoan Bergarara joango da, Agorrosin partidua jokatzen. Gaur egun eibartarrek Soraluzeokoekin daude berdinduta hirugarren postuan.



Funeraria Ehorzetzeta
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea GRUPO funeskadi</p>	

Iker Elorza Beitia

Tel.: 608 30 85 26

e-mail: legalbide@gmail.com



LEGALBIDE

Finka kudeaketa • Aholkularitza juridikoa • Abokatua



AZALEA Edergintza

M^a Carmen Bereziartua

Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 740 310

Gorputz eta aurpegi estetika

Abian dagoen negozioa alokatzen da, erretiroa dela eta.

Txapelketako bikote indartsuenak izango dira Katedralean hilaren 25ean

Orain arte erakutsitako mailaren arabera, **Aspeko eta Asegarceko bikote indartsuenen arteko** norgehiagoka ikusteko aukera izango da domeka arratsaldean Astelena frontoian. Gabonetako jaialdi bikaina antolatu dute Aspekoek eta jaialdiko partidu nagusienean Irribarria eta Rezusta orain arteko partidurik zailenaren aurrean izan daitezke (gipuzkoarrek jokaturako guztiak irabazi dituzte), Olaizola II.ak eta Untoriak osatutako bikotea ez da nolanhikoa eta. Jaialdia hasteko, Arretxe II.ak eta Ibai Zabalak alde batetik eta Jakak eta Merinok bestetik jardungo dute, nor baino nor. Domeka azken partiduan Dario-Ceci-



lio eta Elordi-Irusta bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Sarrerak gordetzea nahi duten pilotazaleek 661-259-009 telefono zenbakira dei dezakete eta Olayarengatik galdetu.

Aspeko plantila osoa Eibarren

Martitzenean gure herrira etorri ziren Eibarko enpresako pilotari guztiak eta, iaz Teknikerko instalazioak bisitatu zi-

tuzten moduan, oraingoan Armagintzaren Industria Museoan izan ziren bisita gidatua aprobetxatzeko. Bazkaltzera, bestalde, Arrateko Kantabria jatetxera joan ziren.



Asteburu mugitua izan zen azkena Kalamuakoentzat

Barixakuan hasi zuten judo klubeok asteburu berezi hori eta, horrela, Nekane, Iker eta Jon, Manu lagun izan zutela, Angelun izan ziren entrenatzen. Hurrengo egunean, zapatuan, senior mailako Euskadiko txapelketetan izan ziren eta handik zilarrezko hiru dominekin bueltatu ziren Arrate Jorge, Josu Olmos eta Nekane Mu-

guruza. Azkenik, domekan Zumarragan jokaturako alebin mailako txapelketan ez ziren motz geratu emaitzei dagokienez: Eneko Kortak urrezko domina eskuratu zuen, Koldo Estenaga, Gaizka Merino, Zehao Ye eta Ibai Trokaola zilarrezkoarekin bueltatu ziren eta beste laukote batek brontzezkoak bereganatu zituen.

Acua-bike ekintza berria hasiko da urtarrilean kiroldegian


Modalitate berria ekarriko du 2017ak Ipurua kiroldegira, jarraian dituzuen 40 minutuko hiru ordutegirekin: martitzen eta egunetan, 10:15etik 10:55era eta 11:00etatik 11:40ra; eta astelehen eta eguaztenetan, 13:45etik 14:25era. Ekintza berri hori hasi baino lehen, dena dela, aukera egongo da abenduaren 27an eta 29an modalitate hori probatzeko bi egun horietan antolatuko di-



ren ate irekiak jardunaldietan. Hor ere bi saio izango dira: 10:15etik 10:55era bat eta jarraian bestea, 11:00etatik 11:40ra. Ate irekietan parte hartzeko ere aurretik eman beharko da izena Ipuruako harreran.

Markel Alberdik jasoko du sari berezia Gabon Zaharreko Eibarko Kirol Sarietan

Gure herriko igerilari olinpikoak jasoko du datorren asteko **zapatuan,** urteko azken egunean, Coliseoan egingo den Eibarko Kirol Sarietako XXII. edizioko sari nagusia. Berarekin batera herriko kirol modalitate bakoitzean aukeratuak izan direnek denboraldi luze bat egin eta gero ondo merezitako errekonozimendua jaso ahal izango dute ...eta kitto!-k urtero antolatzen duen ekitaldian. Zorionak kirolzale guztiei eta eskerrik beroenak herriko hainbat klubek egingen duten lan eskergarengatik.



Eibartarra Rion izan zen udan.



Eneko Agirrezabalek irabazitako seniorren mailako podiuma.



Bolunburu Memorialak badu harrobia.

Bolunburu krosak jardunaldi bikaina bizi izan zuen Arraten

Kros modalitateko Gipuzkoako txapelak jokoan ipini zituen Bolunburu Memorialaren 67. edizioak jende asko erakarri zuen Olabeko zelaietara eta kros jardunaldia giro ederrean joan zen goiz osoan. Seniorretan Txindokiko Eneko Agirrezabalek eta Goierri Garaiaiko Ainhoa Sanzek jantzi zituzten txapelak eta, Eibarko atletei dagokienez, Aitziber Urkiolak laugarren amaitu zuen eta Pello Osorok 12. postuan. Txomin azken honen anaia lehenengo pro-

mesa izan zen, 19. postuan amaitu zuen proban eta hor izan ziren Jose Mari Bernedo (26.), Igor Fernandez (28.), Jonatan Alustiza (35.) eta Asier Selas (36.) ere. Marcos Untzetabarrenetxea 22. izan zen beteranoetan, Naia Saez 11. jubeniletan eta Eneko Osoro 12. kadeteetan. Eta gazteenei begira, kadeteetan Maddi Tejada (5.) eta Gorka Kareaga (8.) izan ziren eibartar onenak eta Unax Amorrosta (2.) eta Miren Urizar (5.) alebinetan.

Gabonetan tenisean jarduteko aukera

Abenduaren 26an hasi eta urtarrilaren 5era arte tenisean jokatzeko aukera eskainiko du Udal Kirol Patronatuak. Izena Ipuruia kiroldegian, Unben eta Orbean eman daiteke eta aste osoko prezioa 48 eurokoa da bazkideen kasuan eta 75ekoa bazkide ez direnentzat. Jokatzeko hiru orduren artean aukeratu beharko da: 10:00etan, 11:00etan eta 12:00etan hasita.



Mendiko eski-ikastaroa antolatu dute urtarrilaren azken astebururako

Urtarrilaren azken asteburuan, 28an eta 29an, mendiko eski-ikastaroa antolatuko du Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak. Aragoiko Astun haranean egingo den ikastaroak bi maila izango ditu: hastapena eta trebakuntza. Prezioa 140 euro da federatuen kasuan eta 166 euro federatuta ez daudenentzat. Hamar egun aurretik izena ematen dutenek %10eko des-

kontua izango dute eta, horrez gain, ikasleek %20ko beherapena izango dute. Bestalde, 15 eta 21 urteen bitarteko federatuek bakarrik 49 euro ordaindu beharko dute. Plaza mugatuak dira eta izen-ematea on line egin daiteke www.gmf-fgm.org helbidean eta informazio gehiagorako interesatuek Gipuzkoako Mendizale Federaziora jo dezakete.



● tartak
● enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

www.kolorlan.com 667 54 89 16 (Ritxar)



KOLORLAN
P I N T U R A K



**ANDREA
COVADONGA**
(antzezlea)

“Erritmo biziko lana da eta jendeak ederto pasatzen du”

Astelehen arratsaldean, 17:00etan hasiko da "Marikixkur eta hiru hartzak", GluGlu konpainiaren antzezlan Coliseoan. Aktoreek XIX. mendeko ipuin klasikoa gaur egungo oholtzara ekarriko dute, betiko moduan, musika eta dantzarekin jantzita. Galder Perezen zuzendaritzapean, taula gainean jardungo duten antzezleetako bi, Andrea eta Ylenia Baglietto, eibartarrak izateaz gain ahizpak ere badira. 23 urteko eibartarrak aurreratu digunez, antzezlan familia osoarentzat "oso oso gomendagarria" da. Sarrerak 5 euro balio du.

- Noiztik zabilta antzerkian? Nola animatu zinen?

Batxilergoa amaitzean Donostiara joan nintzen eta lau urte eman nituen TAE-n antzerkia ikasten. Amaitu nuenean GluGluk kasting-a egin zuen eta horretara aurkeztu eta jarraian, eurekin lanean hasteko aukeratu ninduten. Harrez gero GluGluren hiru lanetan ibili naiz beharrez: "Hiru txerrixoak eta otsoa", "Txanogorritxo" eta datorren astean Eibarren aurkeztuko dugun "Marikixkur" antzezkiarekin.

- Eta nolako da "Marikixkur"?

Berez familia osoarentzat, bereziki umeentzat pentsatutako lana da. Pertsonaia nagusia Marikixkur izeneko neskatila da. Amonak egunerokoa oparitzen dio, berak idazteko, eta neska han idaz-

tziko ditu bere gauzak eta sekretuak. Gurasoek ilea moztu nahi diote, baina berak ez du nahi. Halako batean, gurasoek bere egunerokoa baimena izan bari irakurri dutela pentsatu eta etxetik ihes egiten du. Hortik aurrera hamaika pasadizo gertatuko zaizkio, tartean Hiru Hartzak ezagutzea. Istorioarekin hainbat mezu helarazi nahi zaizkio publikoari: helduek euren sekretuak errespetatzea nahi duten moduan, umeek ere horretarako eskubidea dutela; askotan norbaiti buruz izaten dugun irudiak errealitatearekin zerikusirik ez duela izaten...

- Musikak eta dantzak toki garrantzitsua beteko dute, ezta?

Bai, aurretik egin ditugun beste antzezlanak bezala, hau ere musikala da, abestu eta dantzatu egiten dugu.

- Lan honetan zein zara zu?

Hiru pertsonaia ezberdin egiten ditut: Marikixkurren amarena, katagorriarena eta hartz amarena. Hasieran, batetik bestera aldatzea tokatzen zenean, ahotsarekin-eta nahastu egiten nintzen, baina berehala ikasi nuen eta gaur egun ondo moldatzen naiz. Pentsa, "Txanogorritxo" lanean zazpi pertsonaia nituen!

- Zeintzuk dira, zure ustez, ikustera joateko arrazoi nagusiak?

Antzeztan amaitu eta jarraian, umeek izaten duten aurpegia ikustea zoragarria da eta helduek ere ederto pasatzen dute. Jendeak bestelako antzezlanak ikusteko ohitura handiagoa dauka, baina hau oso ezberdina da, erritmo bizia dauka eta, beraz, beste antzerki moeta horrekin zerikusirik ez du.

Muñoaren aldeko musika jaialdia

Eibarko Sare-ren "#StopDispertsioa/ Ibon Etxera" kanpainaren barruan, datorren martitzenerako jaialdia antolatuko dute. Coliseo antzokian izango den ekitaldia 20:00etan hasiko da eta herriko hainbat musikariek jardungo dute: Maite Arroita Jauregi (Mursegoko), Zalao Urain (Kokein), Arrate Gisasola, Norton (EH Sukarra), Asier Serrano, Mikel Arrieta, Josu Gil eta Joseba Arrillaga... eta beste hainbat. Sarrerak Depor, Buenos Aires eta Beleko tabernetan aurretik erosteko aukera dago edo, bestela, jaialdiaren aurretik ere salgai ipiniko dituzte (10 eurotan, 5 eurotan langabetu eta ikasleentzat).



Zalao Urain eta Maite Arroita Jauregi izango dira jaialdiko parte-hartzaileen artean.



Irabazleak euren sarietara.

Banatu dira II. San Andres Argazki Rallyko sariak

Martitzen arratsaldean jaso zituzten sariak Arrate Kultur Elkarteak antolatutako II. San Andres Argazki Rallyko irabazleek Topalekuan: txikienen mailan (0-9 urte) lau parte hartzaileei opari bana eman zieten; 10-16 urte bitartekoen mailan bost lagunek hartu zuten parte eta irabazleak Jon Martinez (1. saria) eta Ane Luengo (2. saria) izan dira; eta 17-64 urte bitartekoen mailan, berriz, zazpi lehiakidek jardun zuten eta irabazleak Fernando Retolaza (1. saria) eta Einer Rodriguez (2. saria) izan dira. 65 urtetik gorako mailan, bestalde, ez da inolako parte hartzerik animatu. Sariak banatu aurretik bideo-emanaldian erakutsi zituzten San Andres egunean egindako argazkiak.



Olentzeroren kalejira bihar goizean abiatuko da Urkizutik

Iaz bezala, aurten ere egun argiz egingo da Olentzeroren kalejira. Bihar Olentzerorekin kantatzera joan nahi dutenentzat hitzordua 11:30ean ipini dute, Urkizun. Kalejira ere hortik abiatuko da, Arragueta, Coliseo, Errebal, anbulatorioa, Toribio Etxebarria eta Untzaga ibilbidea betetzeko. Betiko moduan, Olentzeroren kalejira trikitixarekin alaitzen Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako eta Adolfo Jainagaren ikasleek jardungo dute eta, eurekin batera, Eibarko Kantuzaleak eta Kaleetan Kantuz abesbatzak eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleak joango dira. Kalejira amaituta, 12:30etik aurrera Olentzerok umeei harrera egingo die udaletxean.

Marina Etxeberriaren "Eremuak/ Mozketak" lana Portalean dago ikusgai

Urtarrilaren 8ra arte egongo da "Eremuak / Mozketak", Marina Etxeberriaren margo-erakusketa Portalean ikusgai. Erakusketak teknika desberdinak erabilia sortutako lanak biltzen ditu, tartean akrilikoak, tintak edo akuarelak oihalean zein paperean.

Artistak, eremuak sortzeko helburuari jarraituta, bere lanetan azalen arteko egituraketaren ideia garatzen du. Alde batetik, margotutako bi oihal/paperean arteko erlazioa sortzen du, bata bestearen gainean ipinita eta, ondoren, mozketak egiten ditu, Matisse "cut-out" lanak gogoan. Eta, bestetik, oihal bakarrean pintura azalak eta forma geometrikoak erabiltzen ditu, horiek lur-eremuak balira bezala, irudiak eraikitzeko. Martitzenetik domekara ikus daiteke erakusketa, 18:30etik 20:30era.



Sostoaren gabonetako kontzertua

Gaur emango du Sostoa abesbatzak Gabonetako kontzertua, Coliseoan 22:00etan (10 euro). Astelehenean aurkeztu zuten kontzertua Portalean eta, esan zutenez, Viena izango da ardatza. Brahms, Schubert eta Beethovenen lanak eta Vivaldiren "Gloria" entzuteko aukera izango da. Abesbatzarekin batera hainbat musikarik jardungo dute: Isabel Laspiur (pianoa), Andrea Berbois eta Naroa Garcia (biolin eta txeloa), Iñaki Orbegozo eta Ane Milikua (tronpa) eta Gerardo Rifon (Donostiako Orfeoiko organista).



Argazkilaritza ikastaroa

Urtarrilerako argazkilaritza-ikastaroa antolatu dute Arrate Kultur Elkarteak, Jose Luis Irigoienek eskutik. Klaseak urtarrilaren 9, 11, 16, 18, 23 eta 25ean izango dira, 19:30etik 21:30era. Izena emateko arratekultu@gmail.com helbidera idatzi, 943202299 telefonora deitu edo bulegora joan (barkideek 25 euro, besteek 30 euro).



Trio Medianoche-ren disko berria

Atzo aurkeztu zuen Trio Medianoche taldeak "Nuestras pequeñas cosas" disko berria, Coliseoan emandako kontzertuan. Lana Legarreko musika sorkuntzarako gunean grabatu dute, Walter Tuzzeo teknikariaren laguntzarekin. Musika latinoamerikar klasikoetatik (Los Panchos eta Los 3 Reyes, besteak beste) hartutako hamaika abesti bildu dituzte, Joan Manuel Serraten "Aquellas pequeñas cosas" eta Niko Etxarten "Eperra" abestiek batera. Gabonak aprobetxatuta, diskoa kalean salgai ipiniko dute.



Barre ugari Kultun "Sexijentziak askatuz"

Primeran pasatu zuten eguazten arratsaldean Kultu tabernara gerturatutakoek, Bazen Behin clown taldearen "Sexijentziak askatuz" umorezko bakarrizketarekin. Arrate Kultur Elkarteak eta ...eta kitto!-k elkarlanean antolatutako saioan antzezle bakarra Itziar Saenz de Ojer da, baina hainbat pertsonaia antzezten ditu eta guztiakin publikoaren barrea eragitea lortzen du.



ANE URKIOLA

Olentzero maitea

Pare bat buelta eman ostean, aurten telebista bat eskatzea pentsatu dut. Baina ez plasma telebista edota LCD bat. Euskal Telebista Publiko berri bat baizik.

Izan ere, azkenaldian bere identitatea galdu duen susmoa daukat.

ETBrekin hazi eta hezitako belaunaldia gara gu: Superbat-ekin ospatzen genituen urtebetetzeak, Txiskola pasaz umorez betetzen ziren etxeak, Jaun eta Jaben, aldiz, Ajuria Eneako alderik komikoena ezagutu genuen. Goenkalen tentsio une latzak izaten ziren Marialuisarekin, edota Txirri, Mirri eta Txiribitonen Tortolika hartu eta hegan joaten ginen herriz-herri Euskaraokan kantu-kantari.

Azken finean gertukoa, etxekoa eta, batez ere, geurea zen telebista hurra. Poliki-poliki estatuko kanalen konpetentzia zela, LTDaren agerpena, krisi ekonomikoa, segapoto eta interneten eztanda, errentagarritasun-eza... Fikzio gutxiago hasi zen ekoizten, harik eta produktu izarra, Goenkale, desagertu zen arte. Orduan, hasi ziren ekoizten produktu azkarrak, reality-ak eta audientziara bideraturiko ikus-entzunezkoak. Bat-batean telebista piztu eta arrotza da begien aurrean daukaguna, ez gara islatuta sentitzen. Hau al da ekoiztu eta kontsumitu nahi duguna? Izan ere, inoiz baino ikus-entzunezko profesional gehiago daude eta inoiz baino euskaldunagoa eta jantziagoa da ikus-entzulegoa. Beraz, zergatik ez dugu kalitatezkoa eta bertakoa den telebista publiko bat berrasmutzen? Zergatik ez diogu txoritxoari zeru berri bat margotzen?

Dire Straits taldearen musika zuzenean



Datorren asteko eguenean (hilaren 29an) Dire Straits ezagunaren abestiak jotzen dituen Brothers in Band taldeak bere ikuskizun berria, "The very best of Dire Straits" izenburukoa aurkeztuko du Coliseoan zuzenean, 20:30ean hasita. Brothers In Band 9 musikarik osatzen dute eta Dire Straits taldearen kantuak zuzenean eskaintzen dituztenen artean talderik onena dela diote adituek. Emanaldian, besteak beste, "Down To The Waterline" moduko abesti garbiak, "Money For Nothing" abestiaren riff esanguratsua edota "Telegraph Road", "Industrial Disease", "So Far Away" edo "Single Handed Sailor" kantuak zuzenean entzuteko aukera izango da. Sarrerak 28 euro balio du.

Miren Narbaizaren ahotsa 20. Korrikan

Zirkorrika izena du abesti horrek eta, Napoka Iriako eibartarrarekin batera, Pettik, Izaro Andresek, Oihana Fernandezek eta Jurgi Ekizak ere abesten dute, besteak beste. Sortzaile askok hartu dute parte abestiaren grabazioan eta, Uxue Alberdi Elgoibarko bertsolariak jarritako hitzei eta Xabier Zabalak sortutako doinuei jarraituta, Oreka TX, Jarauta 69 txaranga, Ilargi Berdeak eta Asvinenea zirkutaldearen kideek osatzen dute muntaia. 2017koa 20. Korrika izango da, martxoaren 30ean Otxandion hasi eta apirilaren 9an Iruñean amaituko dena, betiko moduan herriz-herri eta eskuz-esku lekukoa pasatu ondoren.



2017koa 20. Korrika izango da, martxoaren 30ean Otxandion hasi eta apirilaren 9an Iruñean amaituko dena, betiko moduan herriz-herri eta eskuz-esku lekukoa pasatu ondoren.

Jose Zugastiren lanak ikusgai Donostian

Urtarrilaren 28ra arte ikusi ahal izango dira eibartarraren lanak Euskal Herriko beste sei eskultoreenekin batera Donostiako Okendo kultur etxean. Ricardo Ugarte, Jose Ramon Anda, Iñaki Ruiz de Egiño, Iñigo Arregi, Iñaki Olazabal eta Koldonika Jauregi izango ditu lagun eibartarrak "7 euskal eskultoreak" proiektuan, Donostia 2016ko antolatzaileek kultur hiriburutza horretarako zazpiek egindako proposamena baztertu eta gero. Bide ofizialetik at bada ere, modu horretan eskultore taldeak tartetxoa aurkitu du euren lanak erakusteko eta bakoitzak lau lan aurkezten ditu. Obren artean denetarik daude: egurrezkoak, altzairuzkoak, brontzezkoak...

Eibarko Kantuzaleak Egogainen izan ziren



Aurreko barixakuan Eibarko Kantuzaleak taldekoek saioa eskaini zuten Egogain gerontologia zentruan. Abesbatzak hainbat abesti ezagun eskaini zizkien han bizi diren nagusiei eta horrela, kantuan ederto eman zuten arratsaldea.



Euskararen aldeko tonbola ELGOIBARREN

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak laugarren urtez jarriko du euskararen aldeko tonbola. Bihar izango da, Kalegoen plazan, 11:00etatik aurrera. Elgoibarko saltoki, enpresa eta norbanakoek eta kanpoko hainbat lagun ezagunek emandako ehunka opari zozketatuko dituzte, euro baten truke. Txosna ere jarriko dute eta Olentzero eta Mari Domingi ere gerturatuko dira.



Martirioren kontzertua 30ean ERMUAN

Datorren asteko barixakuan Martiriok kontzertua emango du Ermuko Antzokian, 22:15etik aurrera. 80. hamarkadan Jarcha taldeko kide, eta ondoren, Kiko Veneno eta Pata Negrarekin batera, Veneno taldearekin ibili ondoren, 1986an "Estoy Mala" bere lehen diskoa argitaratu zuen Martiriok. Hortik aurrera Espainia eta Hego Amerikako musika herrikoia berreskuratzen saiatu da. Irudi sofistikatu eta misteriozkoak jabe den artista ikusteko sarrerak 12 € balio du.

Su Ta Gar ERMUAN ikusteko sarrerak salgai

Su Ta Gar-ek "Maitasunari Pasioa" kontzertua emango du urtarrilaren 27an Ermuko Antzokian. Sarrerak salgai daude, 15 eurotan, Lobiano Kultur Gunean (Goienkale 10, Ermua) edo online Kutxabanken bidez. Maitasuna ardatz, erritmo lasaigoak, sentsibilitatez betetako letrak eta nahasketa elektroakustikoak eskaintzen ditu Su ta Garrek azken lan honetan.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astlehena	Asteartea

hildakoak

- Alazne Puyol Arrieta. 35 urte. 2016-XII-14.
- Herminia Conde Rovira. 85 urte. 2016-XII-14.
- Javier Aldazabal Etxeberria. 78 urte. 2016-XII-17.
- Vicenta Honrubia Caverro. 82 urte. 2016-XII-18.
- Candida Agirregomezkorta Kortaberria. 92 urte. 2016-XII-18.
- Jose Luis Del Amo Delgado. 72 urte. 2016-XII-19.
- Matilde Eizagirre Gonzalez de Txabarri. 82 urte. 2016-XII-19.
- Eladio Askasibar San Miguel. 75 urte. 2016-XII-20.
- Eusterio Camina Sanchez. 90 urte. 2016-XII-20.

jaiotakoak

- Hegoi Urain Sanz. 2016-XII-13.
- Martin Ferreiro Cabo. 2016-XII-14.

farmaziak

- Barixakua 23
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- Zapatua 24
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Domenea 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Astlehena 26
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 27
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 28
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguena 29
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Barixakua 30
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

AURREKOAREN EMAITZA

9	6	3	7	5	8	1	2	4
7	5	1	2	3	4	9	8	6
4	2	8	9	6	1	7	3	5
1	7	6	4	8	5	2	9	3
2	9	5	3	1	7	6	4	8
3	8	4	6	9	2	5	1	7
6	4	2	1	7	3	8	5	9
8	1	9	5	4	6	3	7	2
5	3	7	8	2	9	4	6	1

SUDOKUA

6	3		4				8	
		1		9				
		4	6				2	
		8		3				
	9		8		5		7	
			6		4			
	4			7	3			
				4	1			
	2			6		4	9	

Barixakua 23

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:00 eta

17:00/20:30. "Made in Eibar" Gabonetako azoka. Topalekuan.

KONTZERTUA

22:00. Sostoa Abesbatzaren Gabonetakoa. 10 euro. Coliseoan.

Zapatua 24

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:00 eta

17:00/20:30. "Made in Eibar" Gabonetako azoka. Topalekuan.

OLENTZERO

11:30. "Zatoz Olentzerorekin abestera!" kalejira, Urkizutik hasita (Arragueta, Coliseo, Errebal, Anbulatorioa, T. Etxebarria, Untzaga).

12:30. Olentzerok umei harrera egingo die. Udaletxean.

KONTZERTUA

12:30. Usartza txistulari bandaren gabonetako kontzertua. Untzagan.

KONTZERTUA

13:00. Eguberri kontzertua: "Wien Quintet Molto Vivace". Sutondo Labaderokua (Bittor Sarasketa, 1 ac).

Astelehena 26

HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta

16:30/20:30. Astelena Gabonetako haur-parkea. Astelena frontoian.

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:00 eta

17:00/20:30. "Made in Eibar" Gabonetako azoka. Topalekuan.

ANTZERKIA

17:00. "Marikixkur eta hiru hartzak" umeendako antzezlan, Glu Glu taldearen eskutik. 5 euro. Coliseoan.

Martitzena 27

HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta

16:30/20:30. Astelena Gabonetako haur-parkea. Astelena frontoian.

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:00 eta

17:00/20:30. "Made in Eibar" Gabonetako azoka. Topalekuan.

IKASTEN

16:00. Puntu tailerra.
17:00. Joskintza tailerra. Portalean.

ERABAKI BIOT

19:00. Erabaki Biot, Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Arrate Kultur Elkartean.

JAIALDIA

20:00. Ibon Etxera jaialdia. Coliseo antzokian.

Eguaztena 28

IKASTEN

10:00. Eibar-Berriz ibilaldia. Oinez, Eitzagatik. Hamaiketako etxetik eraman. Autobusa Untzagatik irtengo da.

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:00 eta

17:00/20:30. "Made in Eibar" Gabonetako azoka. Topalekuan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.



Eguena 29

HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta

16:30/20:30. Astelena Gabonetako haur-parkea. Astelena frontoian.

GABONETAKO AZOKA

11:00/14:00 eta

17:00/20:30. "Made in Eibar" Gabonetako azoka. Topalekuan.

IKASTEN

17:45. Dantzaldia (ordubete). Untzagako jubilatutxeko etxean.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

KONTZERTUA

20:30. "The very best of Dire Straits" (Brothers in Band). 28 euro. Coliseoan.

Gabonak Amañan

23, BARIXAKUA

19:00. Txupinazoa, argi-piztea eta Gabon herri-kanta.

24, ZAPATUA

Eguerdian. Cava eta kiskillak.
Arratsaldean. Triki-poteoa.

26, ASTELEHENA

Ardo-dastaketa, Raul Perezekin, Jantaedan-en.

27, MARTITZENA

Umeendako tailerra eta merendola.

28, EGUAZTENA

Ardo-dastaketa, Almarekin, Amesti tabernan.

29, EGUENA

Tor Magoaren ikuskizuna.

31, ZAPATUA

Eguerdian. Cava eta kiskillak.
Arratsaldean. Triki-poteoa.

3, MARTITZENA

Garagardo-dastaketa, Azkena tabernan.

4, EGUAZTENA

Sorpresa-ekitaldia, Lau-Bide tabernan.

5, EGUENA

Magi-poteoa.

Erakusketak

Abenduaren 31ra arte:

- ESTEBAN D' AZUAREN argazkiak. (Portalea tabernan)
- BAKARNE ELEJALDEREN argazkiak. (El Ambigú-n)
- ARGAZKI IKASTAROKO IKASLEEN argazkiak. (Klub Deportiboan)
- JOSE LUIS IRIGOIENEN "India" argazkiak. (El Corte Ingles-ean)

Urtarrilaren 8ra arte:

- MARINA ETXEBERRIAREN "Eremuak / Mozketak" margo erakusketa. (Portalean)
- KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAREN erakusketa. (Portalean)
- Datozen hilabeteotan:
 - CASA DEL PUEBLO-REN MENDEURRENARI buruzko argazki erakusketa. (Casa del Pueblo-n)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.




Zorionak, NORA, eguaztenian zazpi urte egin zenduazena eta. Millioika musu etxeko guztion partez. Segi holan!



Zorionak, GARI!, gaur sei urte egitten dozuzelako. Oso ondo pasau eta musu potolo bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, UNAI, bixar sei urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi-haundi bat etxeko guztien eta, batez be, Julenen partez.



Zorionak, LUKA, gure etxeko bihurrixak jua zan astian bi urte bete zittuan-eta!!! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AITOR, domekan sei urte beteko dozuz-eta. Musu bat famelixaren eta, batez be, Pabloren partez.



Zorionak, ANDER, gaur sei urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, zure arreba Amaiaen partez.



Zorionak, ELENE Salas, haraiñegun 5 urte egin zenduazena eta. Aitxitxa eta amamaren partez.



Ongi etorri, MALEN, gure printzesa hillaren 13an jaixo zan-eta. Patxo potolua etxekuen partez.



Zorionak, NORA (astelehenian urtetxua bete zeduan) eta ANDER (haraiñegun bost egin zenduazena). Segi holan, etxekuen partetik.



Zorionak, NEREA (hillaren 19xan) eta DONATA (16xan) urtiak egin dozuzelako. Musu haundi bat etxekuen partetik.



Zorionak etxeko erregientzat!!, UNAXek hillaren 20xan 10 urte egin zittualako eta MARKELeK bost beteko dittualako 27xan. Patxo potolo bana famelixaren eta, batez be, Joneren partez!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
25ean: 20:00, 26an: 20:30

"Absolutamente fabulosas"

Zuzendaria: Mandle Flechter



(1 ARETOAN)
23an: 19:45, 22:30
(2 ARETOAN)
25ean: 20:00, 26an: 20:30

"El editor de libros"

Zuzendaria: Michael Grandage



(2 ARETOAN)
23an: 19:45, 22:30
(ANTZOKIAN)
25ean: 20:00, 26an: 20:30

"Assassin's Creed"

Zuzendaria: Justin Kurzel



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 631-252750.
- Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 628-747805.
- Neska arduratsuak hiru logelako pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Taberna traspasatzen da Eibarren. Tel. 628-235319.
- Taberna traspasatzen da Ipuruan, foball zelaiaren bidean. Tel. 680-871529 eta 943-256110.

3.2. Errentan

- 100 m²ko lokala alokairuan Elgoibarko Sigma poligonoan. Erabilera anitza: bulego, biltegi... Instalazio elektriko eta urarekin. 400 euro. Tel. 686-888004.
- 18 urteko gorako gazteentzat aukerako lokala alokagai. Ondo prestatutakoa. Tel. 600-890245.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 603-683176.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta formakuntza. Tel. 602-810654.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 602-047812.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-065683.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 602-001567.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 631-499198.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 628-765929.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 695-917617.
- Haur Hezkuntzako teknikaria eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 651-706980. Asier.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da etxeak edo pegorak garbitzeko eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 680-981704.

- Emakumea eskaintzen da dendarri jarduteko, sukaldean laguntzeko eta tabernak edo lokalak garbitzeko. Tel. 666-008974.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-123942.
- Emakumea eskaintzen da 09:00etatik 17:00etara nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 634-446252.
- Neska eskaintzen da 09:00etatik 16:00etara etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 622-417528.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-747703.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 615-394820.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-458061.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-988471.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta dendarri jarduteko. Tel. 632-426847.
- Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Eibarko emakume arduratsua eskaintzen da goizez edo ordu solteetan administrazio lanak egiteko. 10 urteko gorako eskarmen-tua. Tel. 658-845081.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi. Tel. 632-546032 eta 669-179522.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak (baita ospitalean ere) zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 688-959575.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-572229.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-227800.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 661-001246.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 605-303657.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 658-158036.
- Emakumea eskaintzen da 15:00etatik aurrera umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 654-304337.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-533729.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde eta gauz nagusiak zaintzeko. Tel. 689-003537.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 664-357381.
- Gizona eskaintzen da kamioia gidatzeko, garbiketarako egiteko eta zinpeko zaintzaile jarduteko. Tel. 666-655269.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta dendarri jarduteko. Tel. 632-426847.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-193518.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-808125.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 634-256471.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 631-221729.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-420183.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-488692.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Tel. 695-347162.

4.2. Langile bila

- Ugan klubak jarduera ezberdinetarako monitoria behar du (jornada erdiz). Curriculum Ugan-era eraman (Calbeton, 21) edo uganklub@gmail.com helbidera bidali.
- Langilea behar da Amañako okindegi-kafetegian. Tel. 670-251280. jantae-dan@hotmail.com
- Estetizista behar da Eibarko zentro bate-tarako. Bidali curriculum: esteticienei-bar@gmail.com
- Sukalde-laguntzailea behar da Eibarko taberna batean. Tel. 639-792203.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitate mailako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509.
- Fisika, Matematika eta Kimikako klase partikularrak eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez lau laguneko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Saffretti bioetanol tximinia salgai. Prezio negoziagarria. Tel. 648-180634.

6.2. Eman

- Txakur "ratoneroak" oparitzen dira. Urriaren 20an jaiotakoak. Tel. 602-457169.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Patinete Micro laranja galdu zen Urkizuko parkean aurreko domeka eguerdian. Hiru erroberakoa. Tel. 666-195711.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

Aldatzea jarrera bat da. Irabaztea gozamina.



16.900€

#changeisgood

ABC 2016
MEJOR COCHE

Hyundai Tucson Berria. 2016 urteko auto onena Espainian.

Aldaketaren alde egin genuen eta irabazi egin dugu. Sari handi bat lortu dugu: 2016 Urteko Auto Onena izatea Espainian. Auto handi batendako saria, baina batez ere jarrera batendako. Hyundai Tucson Berrian apostu desberdina ikusi dutenei esker.

Esperimentatu aldaketaren indarra www.hyundai.es helbidean

 **HYUNDAI** NEW THINKING.
NEW POSSIBILITIES.

ORARO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZOARAKO

ELGOIBAR

Olaso Polig., 17

943 74 14 80



Hyundai Tucson Gama:
CO₂ Emisioak (gr/km):
119-175. Kontsumo mistoa
(l/100 km): 4,6-7,5

autoescuela
elVelocimetro

125€
+ BEZ

B GIDABAIMEN PACK-A

IZEN EMATEA

+

IKASTARO TEORIKOA

+

5 PRAKTIKA

DOANEKO IKASTARO
PRESENTZIALA LEHENENGO
20 IZEN-EMAILEENTZAT!

Ikastaro osoa

Praktika osagarriak
25€ + BEZ

Tutoretza pertsonala

Hasi nahi duzunean

ERRESERBATU

Eibar: Otaola, 7 (CFP)
Tlf: 636 93 08 66
info@elvelocimetro.com
www.elvelocimetro.com

amazon

fnac



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dokorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Dokorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta **twitter**ren: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julían Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com